

Izar bat zopan

Miren Agur Meabe

Izugarri gustatzen zait zopa. Fideo-zopa edota letra-zopa, izartxo-zopa edota euri-zopa, garbantzuzopa edota barazki-zopa, arrain-zopa edota arroz-zopa.

Nahiz eta zopak baduen alde txar bat: asko janez gero, pixagura ematen dizu.

Aitak beroegi ateratzen du mahaira. Mihia erretzen zait. Sukaldeko leihoan ipintzen dut platera. Amak segituan protestatzen du:

—Itxi ezazu leiho hori, hotz dago eta.

Egia da. Abenduan gaude dagoeneko.

Amari izugarri gustatzen zaio arropak lisatzea. Lisatzea eta kantatzea. Amaren ahotsak erlojuak ere hipnotizatzen ditu. Aitak bigarren ahotsa egiten dio edota gitarra jotzen du, zoparen eltzea zaintzen duen bitartean. Ni logelan egoten naiz lanak egiten. Hasten da kantaldia. Dena uzten dut: musika usain goxo bat da, etxean zabaldu eta nahitaez erakartzen nauena (zoparen usainak bezala). Banoa neu ere pixka batean kantatzera. Artista-arima daukagu. Patxoka amaitzen dugu. Honakoak esanez:

—Hau suertea, elkarrekin egotea!

—Hau suertea, osasuna edukitzea!

—Hau suertea, ezer falta ez izatea!

Alegia, «hau suertea» zorientzuen errepertorio bat. Lehengo egunera arte, betiko leloa endredatu nuen arte. Betikoaren orde, hauxe bota nuen:

—Hau suerte txarra hainbeste suerte izatea!

Ama eta aita eztarrian galdera-ikur bat trabatu izan balitzaie bezala geratu zitzaizkidan begira. Azaldu nien:

—Hainbeste suerterik ez bagenu, agian kalean egin beharko genuke lan. Zuk, aita, gitarra joko zenuke; ama, zuk abestu; eta nik flauta jo edota txapela pasatuko nuke.

Barreak desfileetako txindatak baino ozenagoak izan ziren.

—Ez dago, ba, kompetentzia makala! Kaleak musikari apartez beterik daude...—esan zuen aitak.

—Horixe tristea —esan zuen amak—: batzuk benetako artistak dira, eta ez dute beste erremediorik kalean jotzea baino, txoritxiki bi ateratzeko.

Neure buruari galdetzen diot ea zergatik demontre den txarra kalean jotzea.

—Suerterik gabeko artistak dira... —gehitu zuen aitak.

—Arrazoa ematen didazue, beraz! —oihuka nik.

Kontua da ni irrika bizian nagoela jendaurrean jotzeko.

Gurasoek goraki pentsatzen segitu zuten:

—Baina batzuetan suerte gutxiago du suerte handia izan arren suerterik gabeko musikariei entzuteko segundorik ere ez duenak.

Barreak hasperen bihurtu ziren. Txindata indartsuak, triangeluaren ahots mehea bilakatu ziren. Suertearen gaia korapilatsua zen, zinez.

—Beno, laztana —esan zidaten—, guk hirurok etxean abestuko dugu, orain arte bezala, ondo pasatzeko. Eta kalean profesionalak txalotuko ditugu, konforme?

Ondorio horrek ez ninduen asebate. Seguru nago jendetza bilduko litzaigukeela inguruan. Benetan, uste dut talde arrakastatsua izango ginatkeela.

Aurten flauta jotzen ikasten ari naiz. Orain arte, honako hauek ikasi ditut: *Sisi-do-re-re-do-si-la-sol-sol-la-si-sii-laa*, hots, *Alaitasunaren himnoa*; baita *Sol-sol-la-sol-do-siii* ere, hau da, *Zorionak zuri*. Hil honetan beste honekin entrenatu beharra daukat: *Sol-sol-fa-mi-fa-sool-mi-fa-fa-mi-re-mi-faa-re*, edo garbiago esateko, *Olentzero*. Sasoian sasoikoa.

Buruari asko eragin ondoren, erabaki bat hartu dut: bakarka joko dut.

Hauxe da nire plan estrategikoa: 1. Neguko ekipoa prestatu (txanoa, tapauka, eskularruak...); 2. Bonometroa lortu; 3. Ibilbidea pentsatu.

Nire auzoan ezin dut jo: ez nuke nahi inork ezagutzerik, oraingoz behintzat. Hoberena, geltokiz geltoki joatea: gaur, Zazpi Kaleak; bihar, Guggenheim; etzi, San Mames; hurrengoan Deustu edota Sarriko... BECeraio.

Ordubete eta erdi daukat egunero, futbol-entrenamenduak irauten duena, hain zuzen ere.

Hirian zehar egindako bira artistikoak emaitza onak ditu. Gurasoek uste dute entrenatzen nagoela.

Jotzen dudanean, jendeak irribarreka begiratzen dit. Batzuek txanponen bat uzten didate; beste batzuek ez, zorte gutxi-gutxi-gutxi duten horiek.

Bitartean nire buru praktikoak kalkuluak egiten ditu:

—Ea batzen dudana samurai-mozorroa erosteko adina... edota ordenagailurako joko bat erosteko...


Lan egin eta gero, paseoan itzultzen naiz etxera: mesede egiten dio bihotzari. Gainera, kaleak asko erakusten du.

Adibidez.

Entzuten geratzen naiz parkeko kantante beltzari. Especialista da boleroak eztarri-marrantaz kantatzen. Dizdizka ditu begiak.

Entzuten geratzen naiz zubipeko flautista-bikote argalari, marradun galtzerdiak eta koloretako ileak dituzten horiei. Saltoka dabilta, plastikozko edalontzia eskuan. Behin eta berriz jotzen dute pieza bera, neuk bezala, desanimatu gabe.

Entzuten geratzen naiz eliz atariko soinu-jole bibotedunari. Sudurzuloak puzten zaizkio bere herriko doinuekin edota kantoiko txurreriatik iristen zaion usainarekin hunkituta. (Primeran ulert-



zen dut hori: zoparen usainak niri pizten didan sentimendu berbera pizten baitio- te berari txurroenak).

Entzuten geratzen naiz plazako gitarr-jotzailea japoniarrari. Neska hori dardaraz egoten da, zirimiriarekin inspiraturik edo.

Entzuten geratzen naiz iturriko biolinistari. Haurdun dago. Ezpainak pixka bat moreturik ditu, eta hodei gris bat begiradan.

Hainbeste entzun, berandu egiten zait. Banoa korrika. Koloreak gorrituta heltzen naiz etxera. Esaten diet gurasoei:

—Hil honetako entrenamendua gogorra da benetan!

Eta egia da entrenatzen ari naizela. Neure erara. Gezur arina da nirea, gezur txikia, gezur-erdi. Badaezpada, hobe gaia aldatzea:

—Zer dago afaltzeko? Zopatxo goxogoxoa?

Baina bart gertatu dena ez da egunero gertatzen.

Platera leihoan ipini nuen, beti bezala. Eta izar bat topatu nuen zopan. Ez zen irinezko izartxoa, ez, bestelakoa baizik, arraroa eta distiratsua, zeruan zegoen beste baten berdin-berdina.

Horregatik, gaur inbertsio-eguna dut. Hilabete osoko irabaziak gastatu ditut. Eta gehiago.

Pakete bat mendazko gozoki erosi dut kioskoan, berrehun gramo mortadela supermerkatuan eta dozena bat buñuelo txurrerian. Rastrilloan artilezko txano bat... hamar tebeoren truke! Eta txupete bat botikan.

Gozokiak, kantantearentzat. Mortadela, flautistentzat. Buñueloak, soinujolearentzat. Txanoa gitarr-jotzailearentzat. Eta txupetea, biolinistaren haurtxoarentzat, jaiotzeaz dago eta.

Eman dizkiet opariak nire kolegei. Berriek bostekoa eman didate. Musuak eman dizkidate. Esan didate lankideren bat behar baldin badute, abisatuko didatela, neu naizela lehena hautagaien zerrendan. Burua borborka daukat elkarrekin emango ditugun kontzertuak imajinatze hutsarekin.

Dena zopari esker. Atzo gauekoa, izarrarena, berezia izan zelako: lehenbizikoa ematen, pixa egiteko gogoaz aparte, amets egiteko gogoaz. Edota maitatzekoa.

MARC TAEGER.